



Giro bizia jarri zuten Jalgin ostiral gauean Stay Blues taldeko perkusio, tekla, baxujole eta abeslariak.

Jam sesio ikusgarria

Rythm & Blues doinuak izan ziren nagusi ostiral gauean Jalgi tabernan Stay Blues laukotearen emanaldian

Musika zaleek oro har eta bereziki Rythm & Blues zaleek ederki pasa zuten aurreko ostiralean Jalgiko oholtzan Stay Blues laukoteak herriko musikariekin batera eskaini zuen emanaldiarekin. Blues doinuak nagusitu ziren Jam sesioan, armonikak pisua izan zuen beraz, baina baita tekla, baxu, perkusio eta ahotsak ere. Emanaldi bikaina osatu zuten eta ikusleak gustura izan ziren. •

Tormes-eko Lazaro Txikiaren gora behera barregarriak

Tormeseko Lazaro umeak bere nagusi maltzurerekin bizitako gertaerekin nahiko barre egin zuten larunbat arratsaldean Kultur Etxean "Tormeseko Lazaro Txikia" antzezlan ikustera joan ziren haur eta helduek. Baterajole baten laguntzarekin erritmo biziko lana eskaini zuten euskaraz Nafarroako Malas Pulgas antzerki taldeko kideek. •



Joseba De La Calle "Zilö" margolariak erakusketa dauka Jalgin /4

KIROLA | 2

Herriko mahai tenis jokalariaik Atletico SS taldean ari dira

ALBISTEAK | 3

Musika kontzertu bufoarekin hasiko da inauterietako egitarau zabala

KRONIKA | 5

Oinatz taldekoek Arano inguruko harrespilak ezagutu zituzten

ERREPORTAJEA | 6

El Salvadorreko Nejapa herrialdeko gazteei lagunduko die Udalak

- Era guztietako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

Proba ezazu gure laser zerbitzua

MAITE
ESTETIKAKO ARETOA

Uistin kalea, z/g • Tel.: 943 370845 • LASARTE-ORIA

OTEGI Txotx garaiak hasita!

SAGARDOTEGIA
SOLLAENA BASERRIA

- Larunbata eta jai eguerditan irekita
- Asteartetik larunbatera gauero irekita



Zabaleta auzoa • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 365029

Lasarte-Oriako mahai tenis jokalariek Atletico taldean ari dira azken urteotan

■ Gogoia dute berriro herriko taldea sortzeko ■ Eskola kirolean badira 25 neska mutil

Lasarte-Orian badira, mahai teniseko 7-8 jokalariek Donostiako Atletico SS taldean jokatzen dutenak. Duela bospasei urte herriko taldea desagertu zenean Donostiakoak eskaini zien jokatze

aukera eta ordutik han dihardute, baina ez dute baztertu berriro herriko taldea berpizteko aukera. Aipatutako jokalariek hitzegin dute horretaz, gogoz daude eta datorren urtean ez bada, hurren-

goan, martxan jartzeko prestatzen ari dira. Talde lehiakorra osatzeko moduan izango direla uste dute. Bestalde, eskola kirolean 25 lagun elkartzeko dira ostiralero Mitxelinen jokatze

Jon ALTUNA

Lasarte Orian mahai tenisean maila ona dago. Iñaki Blanco, Estatuko bigarren mailan ari da jokatzen Gasteizko talde batean eta beste zazpi jokalariek hurrengo mailetan jokatzen dute Atletico SS taldean.

LOKEko taldean duela urte batzuk hasitako gaztetxoak eta Dani Rebordinos beteteranoa dira. Izan ere, duela bospasei urtera arte bazen Lasarte-Orian mahai tenis edo Ping Pong-ean ondo aritzen zen taldea, baina taldekoak jokatze gogo gehiago zuten taldeaz arduratzeko baino eta uztea erabaki zuten. Iñaki García, 23 urteko jokalariek, azaldu digu nola izan zen eta orduan gaztetxoak zirenak orain zertan ari diren.

Hautura

"Hautura izan zen, bazen jende zaharra goa aurretik arduratu asko hartu zituen eta piska bat nekatuta zegoena, eta berriak sartu ginenak gaztegiak ginen ardurak hartzeko, (dirua bildu, federazioarekin eta arbitroekin harremanak, bidaia,....), lan gehiegi zen guretzako. Donostian jokatze-ko aukera eskaini ziguten eta guk nahi genuena hori zen".

Iñaki García azaldu digu Atletico SS taldearekin zuten harreman onari esker aukera izan zutela segitzeko. Ordutik Donostian "oso gustora" ari dira, baina han jokatzen duten batzuk hitzeginda dute itzuli nahi dutela. "Jendeak jakin dezala, nahi duenak, animatzen bada, herrian jokatze-ko aukera izango duela".

Tolosan ere talde berria sortu da, eta hango presidentearen hitz batzuek berotu ditu Lasarte-ari, Iñaki García kontaktatu digunez. Hark esan zien "tortilla oso goxoa egon daitekeela, baina zuk zeuk egina bada askoz goxoagoa dela". "Pentsatzen egon ginen eta egia esan arazoia dauka. Orain jada esperientzia dauka eta gogoia dauka berriz taldea sortzeko Lasarten. Laguntza espero dugu, bai Udalaren aldetik eta LOKEren aldetik. Ikusi nahi dugu laguntze-ko zein jarrera daukaten eta zein bitarteko edo baliabide izango ditugun" esan digu.



Iñaki García duela sei urte Lasarte-Oriako taldean jokatzen zuenean. Orain Atletico SS taldean ari da.

Txikitatik hasita

Iñaki berak dauka taldearen pisu handiena hartzeko asmoa. Bere ikasketak kanpoan bukatu eta gero, pare bat urte barru, espero dute jada martxan izatea. Ikasleentzako joan eta erakusteari garrantzia handia ematen diote. "Ikusten dugu maila ona dagoela baina jokalariek berriak ez datoz eta galtzen ari da. Jende berria ateratzea polita da. Noizbehinka norbait ateratzen da baina ez asko".

Lasarte-Orian bada zaletasunik, eskola kirolean 25 neska mutil ostiraletan elkartzeko dira Mitxelingo polikiroldegian.

Iñakiren iritziz kopuru handia da, "25 lagun, ping-pong-izateko, kristona da. Donostian bertan, berez jende gehiago egon beharko litzateke, eta aurten bost berri hasi dira soilik. Horietatik engantxatuta daudenak bi dira".

Iñakik gogo handia du herrian erakusten hasteko. Bera nola zaletu zen azaldu zigun. "Kuadrila osoa joan ginen 12 urterekin Landaberrira probatzeri eta ez zitzaidan ikaragarria iruditu, kirrol normala besterik ez. Hasieran nahiko asperrakia da: etengabe pilotaren bila,.... gero zaharren

laguntzari esker maila hobetzen hasi ginen, jarraitu eta engantxatu gintuen txapelketak izan ziren". Estatu mailan hainbat lekutan izan dira. Horrek asko erakartzen eta lotzen du jendea.

Maila ezberdinak

Zazpi-zortzi dira orduko taldean hasi eta maila txukunean ari direnak, Lasarte-Oriakoak batzu eta Usurbilgoak besteak. Iñaki Blanco da maila altuena ari dena. Maila gorena, atzerriarrez betetako superdibisioa da eta Iñaki Blanco hurrengoan ari da, ohorezko dibisioan, Gasteizko taldean.

Gero Lehen Mailan Lasarte-Oriako bi jokalariek daude, Iban García eta Iñigo Ruiz. Maila oso ona daukate, baina ligan euren taldea ez da oso ondo ari eta jaisteko arriskuan dira. Maila honetan Atletico SSK duen beste taldea ondo doa, 3-4 postuan, igoera fasea jokatze-ko aukera ematen duen bigarren tokitik gertu.

Ondoren dator laugarren maila bat, Bigarren Maila eta hor Iñaki García, Igor Arizmendi, Dani Rebordinos eta Usurbilgo Jon lartza daude. Hauen taldea oso ondo ari da, baina zaila ikusten dute bigarren postu maila oso handia dagoelako. Baina hurbil daude.

Gero beste bosgarren maila

bat bada Gipuzkoa mailan: Euskadiko lehen maila izenean Favio Hernandez eta Dani de la Fuente ari dira igozteko aukera askorekin.

Ordu asko entrenatzen

Beste edozein kirolean bezala, ondo jokatu eta hobetu nahi duenak ordu asko sartu behar ditu. "Gogoratzen naiz, lehenengo urtean egunero lau ordu joaten nintzen, sei egun astean eta zazpi ezin zirelako. Ordu pila sartu eta orduan saltoa ematen duzu, txapelketetara joaten zara eta jada beste gauza bat da. Orduan engantxatu eta gustora aritzen zara" kontatu digu Iñakik.

Hasi berrietatik badira txapelketa interesgarriak, bakarka, 21 urtetik azpikoentzat. Hortik aurrera jada maila oso altua dago, profesionala. 21 urtera arte, nahiz eta maila oso ona ez izan, federatua baldin bazaude, eskualdekoan parte hartu dezakezu aurrea eta sailkatuz gero, Estatuko txapelketa.

Bakarkako txapelketak

Gipuzkoa mailan txapelketa piramidalak jokatzen dira: maila gorenean talde bat dago, bigarrenean bi, hirugarrenean hiru,.... Maila bakoitzean bi aurrenak igo egiten dira. "Oso ondo dago txapelketa hau, beti zure mailakoekin jokatzen duzulako. Ez daude beti irabazten duten oso onak ezta aspertuko dituzten oso txarrak. Beraz ondo bazabiltza gora eta gaizki bazabiltza behera".

Denek jokatzen dute gogoz txapelketetan baina, Iñaki Blanco eta Iñigo Ruiz ari dira nabarmentzen. Blanco atzerriarrei irabazteko gai izan zuten. Iñaki García-aren ustez Lasarte-Oriako taldea osatzen bada eta bi jokalariek hauek "gurekin" badaude, lehen mailari erraz eutsiko diote.

Herriko txapelketa, Buruntza, ez da azken urteotan egin, baina garai batean Estatuko famatuenetakoa zen. Alde guztietako jendea etortzen zen eta azpimarragarria zen antolaketak. Txapelketa askotan egon den Iñaki García-aren ustez hauen artean onenatarikoa zen Lasarte-Oriako. "Taldearekin gertatu zen antzekoa gertatu da sari honekin ere". •



Iñaki García esan digu herriko jokalariek berriz taldea osatu nahi dutela.



Musika tresnak ikasten ari direnek 'Zezenak dira' eta '1 de enero' abestiak eskaini eta dantzan jarri nahi dituzte Kultur Etxean a joango diren ikusleak.

Ordezko ur hornikuntza hodia jarriko da eskualdean

Añarbeko Ur-Mankomunitateak Urumeako Lastaolako zentral hidroelektrikoa erosi-ko du eskualdeko Mankomunitateko ur hornikuntza sistema berritzeko.

Azpiegitura berri hau uren hornikuntzarako ordezkobide izango da Donostialdea eta Buruntzaldeako herrietzat, Lasarte-Oria barne. Eta Mankomunitateko 308.000 biztanleren ur hornikuntza hobetzeko balioko du.

Egun hodi bakarra

Egun Añarbeko presatik Petritegiko ur tratamendu estazio-ara doan hodia da, ur emaria garraiatzen duen bakarra eta azkeneko urteetan egin diren azterketetan hodia hondatzen ari dela egiaztatu du Añarbeko Mankomunitateak.

Beraz aipatutako hori da berrikuntza egiteko arrazoi nagusia. 1960. urtean martxan jarri zen sistemak 48 urte daramatza ura hornitzen eta berritzeko momentua dela deritzo Mankomunitateak.

Ordezko hodia

Añarbeko presatik ur emaria Urumea ibaira askatzean sortu daitezkeen arazoei erantzutean datza ordezkohodiaren proiektuak. Añarbeko ura Urumean ibaira askatu eta gero, Hermanin, Lastaola inguruan dagoen presa txikitik bonba baten bidez Petritegiko ur tratamendu estaziora bideratuko luke ur hori.

Estazio honetan urak edateko ur bihurtzen dira eta herri desberdinak hornituko lituzke.

Musika Eskolaren kontzertu bufoa Inauterien hasieran

- Ostegunean arratsaldeko 19:00etan eskainiko da Kultur Etxean
- Semaforoaren abestia, Maitia nun zira, Lau Teilatu,... egitarauan

TXINTXARRI

Ostegun gizen eguna da hurrengoa eta Lasarte Oriane egun horretan irekiko da aurtengo inauteri jaietako egitaraua. Manuel Lekuona kultur etxeako aretoa arratsaldeko 19:00etatik aurrera, sorgin, pirata, pailazo eta milaka pertsonaia desberdinez beteko da.

Urtero legez, Lasarte-Oriako Musika eskolako ikasleek Ihauteriei ostegunez emango diote hasiera eta

egun hauetan buru belarri lanean dihardute guztia ongi aterada din.

Kontzertu bufoa

Miren Etxenagusia zuzendaria ikasleek azaldu ziguenz, Musika Eskolako txikiek emango diote kontzertuari hasiera. 1. eta 2. mailako Txokoetako haurren jantziek eta hauen naturaltasunak ikusleak alaituko ditu.

Eta halaber, Josu Izagirre irakaslearen laguntzaz, perkusio instrumentuak eta xilofono

edo metalofonoaren makila esku artean, *Semaforoaren abestia* eta *Pilotekin jolasean* abestiak eskainiko dituzte.

Ondoren, Musika Eskolako ikasleak eta irakasleak ikusi eta entzun ahal izango ditugu. Hauek *Maitia nun zira* edo *Lau teilatu* abesti ezagunak, zein klasikoagoak eskainiko dituzte.

Festarekin jarraitzeko, Musika Hizkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleek, musika tresna desberdinak ikasten ari direnekin batera, zenbait

kanta eskainiko dituzte elkarrekin: *Zezenak dira* edo *Uno de Enero* eskaini eta ikusleak dantzan jartzeko asmoa dute.

Elurtza folk amaitzeko

Azkenik, Elurtza folk taldeak Benito Lertxundiren *Urrundik heldu naiz* eta Iñigo Peña irakasle ohiaren *Mugak zabalduz* abestiekin emango dio amaiera urteko kontzertu alaitsuenari. Ihauterien giroan murgiltzeko aukera aproposa, beraz, ostegunean Musika Eskolak eskaintzen duena. •

Sorgin dantza eraman zuen Baionara Erketz taldeak

TXINTXARRI

Inauterietan zerikusia duten euskal dantzen topaketa batean parte hartu zuen Lasarte-Oriako Erketz taldeak larunbatean Baionan. Euskal Herriko zazpi lurraldeetako taldeak elkartu ziren eta bakoitzak bere lurraldeko dantza bat eraman zuen. Guztiak ziren inauterietan zerikusia dutenak, esaterako Erketz-ek Sorgin Dantza eraman zuen Gipuzkoako dantza gisa, lapurtarrek berriz beraien Lapurdiko inauteria eskaini

zuten, naparrek Altsasuko inauteriko momoxomorroak eta zanpanzarrak, behenafarrokoez Luzaideko ihauteria,...

Goizean eguerdiko 1ak bitartean kalejira egin zuten Baiona Txikian barrena tarte-ka dantza eginaz, gero denek elkarrekin bazkaldu, bazkaloste-kan nahiko dantzatu eta abestu ondoren, arratsaldean beste kalejira bat egin zuten Baiona Txikian eta bukatzeko plaza baten talde bakoitzak bere saioa egin zuen. Baionako inauterietan ospatu dira aste buru osoan. •



Joseba De La Calle, Zilö

‘Eremu laua ikusi eta margotzeko gogo pizten zait’

Lehenengo erakusketa du Joseba De la Calle, Zilok, Jalgin jarri duena. 30 urteko lasarte-oriarra duela bizpahiru urte hasi zen margotzen eta margoak eskuratzen baldin baditu gogo biziz aritzen da hauek amaitu bitartean. Bere irrika eta egonezinen ondorio dira zintzilikatu dituen lanak. Aitortzen du askotan gainazal lau huts bat ikusi orduko jartzen zaiola hura margotzeko gogo.

Jon ALTUNA

Joseba Zilö-k baditu bi zaletasun. Batetik musika kontsumitzaile eta jartzaile da. Bestetik margotu egiten du euskarri ezberdinen gainean: egurra, papera, kartoia, liburua,... Askok pentsatu gabe jarri ditu bere lanak Jalgi tabernan: materiala sobera zuen, "baita tabernako paretak guztiak oso osorik tapatzeko ere". Otsaila osoan egongo dira ikusgai.

The Artificial Smile Compañy, erakusketaren izena nondik ateratu duzu?

Marrazkietako batean jarri nuen, moztutako meloi baten ondoan. Grazia eragiten zidan esaldiaren inisialak berak ere, The ASCO. Erakusketari zein izenburu jarri behar nion galdetu zidatenean ez nekien zein jarri eta horixe jarri nion.

Zilö DJ ere izen berezia duzu...

Nire ezizena da. Joseba deitzen naizenez, lagun bat hasi zitzaidan Joseba Zilar esanaz, "bazilatzen" eta azkenean Zilö.

Aurkezpena ere berezia izan zen larunbatean, batetik erakusketa eta bestetik ttakuntzic-en barruan musika jartzen, nola sentitu zinen?

Arraroa egin zitzaidan, etxean bezala nongoen marrazkien artean. Soinua ez zen oso ona eta laster hustu nuen taberna, kar, kar...

Noiztik margotzen duzu?

Duela pare bat urte hasi nintzen. Berez ez naiz mundu honetakoa, peritua naiz, baina beti izan dut arte-zaletasuna.

Askotan aritzen al zara?

Materiala daukadanean, bukatu arte, erlojuaren kontra. Aspaldian formatu handiekin hasi naiz eta zailagoa da, tokia behar da, lehortzen utzi behar da eta egonezinarekin, hasi eta

bukatu arte segitzea gustatzen zait. 6-7 liburu margotuta dauzkat. Hasi eta ta ta ta bukatu arte. Marrazki txikiekin hasi nintzen, umeak bezala, lau marra egin eta piskanaka ikasten joan naiz, ez daukat eta formaziorik,...

Zaletasuna berezkoa duzu beraz, ez duzu hori ikasi. Zein momentutan aritzen zara?

Txikitatik gaizki marrazten nuela banekien eta hori aldatu nahi nuen, zerbait ikasi,... Lanik gabe geratzean, askoz denbora gehiago izan dut margotzeko: Denbora guztia horretan ematen nuen, goizean jaiki orduko hasi edo gauean etan gabe segi,... denetarik egin dut.

Erakusketan euskarri ezberdinak erabili dituzu, kasu batzutan balio ez duten gauzak, ate zahar bat esaterako? Zerbait adierazi nahi al duzu horrekin?

Gustatzen zait zakar edo zikin itxura hori, erabiltzen dudak teknikarekin bat doa, ez dut fin fin margotzen. Nire eskutan erortzen den dena erabiltzen saiatzen naiz, erloju zaharrek in robotak egiten ditut,... Azken finean edozer gauzatan ikusi dezakezu, figura bat edo aurpegi bat.

Aurpegi asko daude zure lanetan, obsesioen bat al duzu?

Uste dut baietz. Ez dakit. Lehenengo ikusten duzuna da, konbinazio erraza da bi begi eta aho bat. Zuritik hasi baino nahiago dut marraztuta dagoen zerbaiten gainean hasia. Bestela beti berdina egiten duzu.

Nola definituko zenuke zure pintura?

Nolabait subkonszientean dagoen zerbaiten adierazpena dela pentsatzen dut. Gehiegi pentsatu gabe egiten ditut, nonbaitetik aterako dira.

Zein pintura erabiltzen dituzu?

Koadro txikietan tipeg-a asko



Zilök zenbait liburu margotuta ditu, baina Jalgin koadroak zintzilikatu ditu. Aurpegiak dira nagusi bere lanetan.

“ *Materiala daukadanean erlojuaren kontra aritzen naiz, margo guztiak bukatu arte lanean.* ”

erabiltzen dut, pegatinak, errotiladoreak,... eta handitan, lakak, sintetikoak, edo hauek akrilikoarekin nahastuta.

Esperimentatzea gustuko duzu beraz?

Bai baina gehiegi ikasi gabe. Ahaztu egiten zait segituan izen doan ondo zeinekin.

Gero zer egiten dituzu: oparitu, saldu,...?

Denetarik, gehiena gustatzen zaizkidanak, handienak, nire umeak bezalakoak dira eta oso erraz ez ditut ematen. Gauza txikiak ematea gustatzen zait, jende bereziari, estetikoari edo

lagun baten opari gisa baloratuko duen jendeari.

Noiztik musika jartzen?

Horretan jada urte dextente daramazkit, zortzi bat edo. Siglo XXn hasi nintzen asteburuetan eta Donostian zenbait lekutan jarri izan dut, Pockara, Ondarra, Akerbeltz,... Taberna giroetan gustatzen zait diskoteketan baino, jarritako musikak diskotekeroagoa dirudien arren.

Zein eratako musika jartzen duzu?

Normalean elektronikoa, dantzatzeko musika. Baina ACDC ere izan daiteke dantzatzeko

musika. Punk-a eta rock-a beti gustatu izan zaizkit elektronikoa baino gehiago. Musika elektronikoa ez da hain zaharra ere, eta ni bai.

Biak, musika eta artea uztartzen al dira zure bizitzan?

Musika kontsumitzaile gisa, ez sortzaile gisa. Baina niretzat izugarria da norbaiti gustura sentitzen lagunduko dion zerbait egitea. Onena hori da, ondo pasatzeko musika edo musika berria jartzea, etortzen denak entzun ez duen musika jartzea. Marrazkietan ere barruan dudak zer edo zer ateratzen zait.

Nola inspiratzen zara, zer egiten duzu?

Berez ateratzen zait. Materiala eskuratzeko gogoarekin egoten naiz, hasteko eta gero segi bukatu arte. •

Oinatz taldea Aranon elurretan

■ Inguruko mendietako harrespilak ezagutu zituzten ■ Babarrun jana egin zuten gero Arano herrixkan ■ Gero eta lagun gehiago biltzen da Oinatz taldearen irteeratarra

Eguraldi hotzari aurre eginez, berriro ere irteera arrakastatsua egin du Oinatz taldeak. 2009ko lehen irteera, aurreko igandean, otsailaren 1ean, Arano ingurura egin dute, bertako harrespilak bisitatu eta babarrunak jatera. Elur ekaitza iragarrita zegoen

Jon ALTUNA

Hasierako asmoa aldatu egin behar izan zuen Oinatz taldeak eguraldi iragarpenak zirela eta. Andoain eta Urnieta gainean, Onddi, Aballarri eta Adarra mendien magalean dagoen Bexabitik Aranorako bidea egin nahi bazen ere, eguraldi txarra eta elur ekaitza zela eta, Arano-ra autoz abiatu eta handik egin zuten mendi buelta. Arano Nafarroako herria da Gipuzkoako mugan. Bitxia da itsasoa ikusten dela bertatik, Donostia-ko badia egun garbietan. Eurek gutxienez Urgull eta Igeldo ikusi zituzten. Nafarroan berezitasun hau duen herri bakarra da. Dena den batzuek esaten dute Zugarramurdiko kanpandoretik ere ikusten dela itsasoa.

Oinatz taldeak aurretik prestatzen du irteera eta aurreko iganderako bi helburu zituzten, batetik, inguruan ugariak diren harrespila edo Cromlechak ikustea eta bigarrena babarrunak jatea.

Harrespilak eta hagina

Jakina da Arano eta Goizu eta artean hainbat trikuharri, mairu-baratze eta harrespila daudela, Pirinio osoan ez da hainbesteko pilaketarik. Bi kilometrotan 59 daude eta Pirinio osoko politenak dira aditu batzuen ustez. Aurrenekoak Joxe Miel Barandiaran ezagunak aurkitu zituzten 1923an eta azkenak 2006an ezagutarazi ziren.

Aurretik Aranoko hilerrian arbola ikusgarria ezagutu zuten. Aranoko hagina arbola zahar zaharra da. Zuhaitzen

arteak zaharretakoa da hagina, 2000 urte hartu ditzake eta.

Lepotik zintzilik

Euskal Herriko mitologian badu bere tokitxoak. Zuhaitz toxikoa da, bere atal gehienak dira pozoitsuak, hazia inguratzen duen eraztuna izan ezik. Euskal mitologiako kondaira batzuek diotenez, baskoiek pozoi hau erabili zuten errotarren eskuetan erori baino lehen bere buruaz beste egiteko. Lepotik zintzilik eramaten omen zuten haginaren fruitua.

Gerra zibilaren garaian are-rioaren zaldiak hiltzeko erabili zela ere esaten da. Bestalde, zuhaitz hauen gerizpean egin izan dira herri askoren batzar-rrak, eta Gipuzkoako armarrarian zein beste armarraskotan ageri dira haginak. Hainbat euskal toki izendatze-ko ere erabili da hitza.

Toki magikoa

Ondoren belar artean gordeta dauden harrespilak ezagutu ahal izan zituzten. Elur asko zegoen oraindik, baina leku magikoa izanik denak harrespilen inguruan jarri ziren boro-bilean. Gero harrespilen inguruan dauden teoria ezberdinak ezagutu zituzten.

Teoria baten arabera, arbasoek hildakoen gorpua erre eta harrespilen erdian lurperatzen zituzten errautsak. Beste teoria baten arabera, harrespila bakoitza izar bati dagokio eta izarren behatokiak izango lirateki. Bi liburuan bi autorek azalpen ezberdina ematen dute beraz aipatutako cromlech horiei buruz.



Arano inguruan dauden harrespiletako batzuek eta hauen berezitasunak ezagutu zituzten. Argazkiak: Josu Agirretxe



Elurak ez zituen Oinatz-ekin Aranora abiatu ziren lasarteoriarrak ikaratu.



Babarrunak jan ondoren kantuan eta dantzan aritu ziren herritarrak.

Pirinioan harrespil asko dira eta hauek dira mendikateko azkenak, Oria ibaitik aurrera ez da jada bat ere. Kristautasuna iritsi zenean elizatan lurperatzen hasi ziren gorpua, beti eguzkiari begira eta adituen uestez, ohitura horiek kristautasunaren aurretik zetozen.

Aranon, babarrun jana egin zuen taldeak, baba, aza, odolki, txorizo, saiheski eta bestee-kin. Bazkalostean beti bezala lagunarte bikaina izan zen, txistu eta atabalarekin girota. Martin Anso elezaharren bi liburu argitaratuak dituen idazle eta kazetariak Aranon kokatutako kondaira bat ere kontatu zuten.

Aipagarria da gero eta herritar gehiago izan direla Oinatz irteeretan: Araotzen hogeitau lagun izan ziren, Bolibarraren hogeitamar eta Aranon berrogeitik gora. Hurrengoia seguru aski Etxalarreko usategiak ikustera izango da. •

M. Berasategi

Kafeak



Beti dago aukera
kafe on bat hartzeko



INFUSIOAK

- TE BREAKFAST
- TE TXURIA
- TE BELTZA
- TE GORRIA (Pu-Erth)
- TE BERDEA
- TE EARL-GREY
- TE JAVA
- TE CEYLAN
- TE SAPOREAREKIN e.a....

TEINA GABEAK

- MELISA, TILA, KAMAMILA, MENTA, SAGARRA, ANIXA, MAKILGOXO, ROOIBOS, e.a...

KAFE ARABIKOIA

- PARACATU (Brasil)
- TARRAZU (Costa Rica)
- Betiko KOLONBIA



Hipodromo etorbidea 1 • Tel.: 943 361316
LASARTE-ORIA

Nejapa herrialdeko gazteei lagunduko die Udalak

■ 2002. urteaz geroztik, Udalak eta Hijos del Maiz GKEk Froilan Elespe eskola dute martxan

TXINTXARRI

El Salvadorreko Nejapa herrialdean oso ezaguna zen, Froilan Elespe Lasarte-Oriako zinegotzia. Harreman estua zuen bertako herritar eta politikoekin eta hainbat proiektu bultzatu zituen bertan. Horregatik, bere heriotzaren ostean, Lasarte-Oriako Udalak Froilan Elesperen omenez, El Salvadorreko gune honetan Froilan Elespe eskola sortzeko ahaleginak egin zituen, Hijos del Maiz Gobernuz Kanpoko Era-kundean laguntzaz.

2002. urteaz geroztik dago eskola martxan. Zazpi urte hauetan, 10.000 bat gaztek parte hartu dute bertako ikastaro, tailer edo ekintza batean, azkenekoan, 2600 bat egon dira eta aurtengoan 1725 gazte espero dituzte.

Ostegunean, aurreko zenbakian aurreratu genuen bezala, Ricardo Gayol eta Francisco Villegas Hijos del Maiz GKEko kideak egon ziren eskolan egiten diren proiektu desberdinak eta etorkizunera begira egingo dituztenak azaltzeko.

“Baliabideak optimizatu eta ekintzak aurrera eramaten ditugu,” adierazi zuen Ricardo Gayol GKEko kideak, “gainera proiektuen jarraipena egiten dugu eta hauek da El Salvadorren dugun bakarra.”

Froilan Elesperen omenezko eskolan garapena, bakea eta elkarbizitza dira hezkuntzaren oinarria. Lau arlo jorratzen dira (arte eta kultura, hezkuntza eta trebakuntza, kirola eta aisia eta bokaziozko hezkuntza Nejapako 10 komunitateetan egiten du lan. “Hala ere, Nejapako herrialde kanpoko jendeak ere parte hartzen du ekintzetan,” azaldu zuen Ricardo Gayolek.

Gazteak eta etorkizuna

Orain arte, lan gogorra Nejapa hiriburuan egin da, baina eskola deszentralizatu nahi dute eta biztanle guztie-

tara iritsi nahi dute, batez ere gazteengan.

“Gazteak dira etorkizuna eta hauek marengatik, gazte talde gatazkatsuetatik aldentzea da gure helburua,” aipatu zuen Hijos del Maiz elkarteak kideak.

Horretarako, hainbat ekintza burutu dituzte, gazte garapenerako komitea sortu, Nueva Esperanzako komunitatean gaztetxea hornitu, herritarren parte-hartze diplomatura sortu, El Salvadorreko memoria historikoari buruzko ekitaldiak egin, genero berdintasunaren aldeko plataforma sortu edo Ingurumen komiteak sortu dituzte, esate baterako.

Genero berdintasuna

Azpimarragarria da proiektu honetan genero berdintasunari ematen zaion garrantzia.

“Emakumeek, zein gizonek parte hartu dezakete ekintzetan eta gainera ama gazteek leku berezia dute. Izan ere, El Salvadorren bortxaketa eta sexu-hezkuntza ezagatik neska gazteak ama dira 11 edo 12 urterekin eta aukera gutxi dituzte ikasten jarraitzeko. Froilan Elespe eskolak, ordea, aukera hori ematen die eta aurtengo proiektuan gainera gure ekintzetan lasai parte hartzeko, haurrak zaintzeko ekimena martxan jarriko dugu,” adierazi zuen.

Honetaz gain, Nejapako eraldaketa epe luzekoa izango zela azpimarratu zuen, “proiektu hau hezkuntzan oinarritutako eraldaketa da eta, beraz, epe luzekoa”.

Eta azkenik, Lasarte-Oriako Udalarri eskerrak eman zizkion proiektuan laguntzeagatik.

Ostean, hitzarmena sinatu zen eta honen harira zuzenke-ta bat egin nahiko genuke. Ostiraleko zenbakian argitaraturako diru kopurua ez zen zuzena, Udalak urtero Hijos del Maiz erakundera bideratzen duen laguntza 35.835 eurokoa da. •



Ricardo Gayol Hijos del Maiz GKEko kideak Ana Urchueguia alkatea, zein zinegotziei azaldu zien proiektua.

Proiektua 2009

Helburua: “Nejapako herrialdeko komunitateetan hezkuntza, ahalduz eta gazte herritarren prozesuak indartzea”

Hartzaileak: 10 komunitateko 1.725 gazte, horietatik %52a emakumeak dira eta %48a gizonak

Ekintzak:

- 1- Udal Gazte taldeen prozesua indartzerako lidergo prozesua sortuko da. Honela, 4 gaztetxetan zuzendaritza kontseiluak sortuko dira; zuzendaritza kontseiluentzat sentsibilizazio eta hezkuntza demokratikoa erakusken duen eskola garatuko da; herritarren parte-hartzeko diplomatura ere komiteetako gazteentzat; Froilan Elesperen bizitzari buruzko tailerrak; El Salvador eta Nejapako herrialdeko historiari buruzko tailerrak eta esperientzia antolatzaileak oinarri dituzten bi ikasle truke.
- 2- 4 gaztetxe sortu eta kudeatzea. Canton Tutultepeque, Las Américas Komunitatean y Maiatzak 2 Komunitatean eta Nejapako hiri zaharrean 4 gaztetxe hornitu eta martxan jartzea. Gaztetxe bakoitzak 4 gune izango ditu gimnasio txikia, liburutegi txikia, Internet duen informatika gela eta kirola egiteko gela.
- 3- Kirol, dibertimendu eta kultura guneen indartzea, generoa kontuan izanik. Froilan Elespe Hezkuntza Integralerako zentroa eraikiko da; futbol eta saskibaloitxakelketak ekimene, zein gizonentzat; haurrak zaintzeko ekintza emakumeek parte hartu dezaten; Nejapako gazteen eguna; dantza garaikidea, folklorikoa eta break dance uztartuko dituzten taldeak sortzea, gazteentzako Suzko Bola prestatu, etab.
- 4- Ingurumenarekiko errespetua eta sentsibilizazioa. Hezkuntza zentroetan sortu diren Ingurumen komiteetarako urteko plan operatiboa egitea; Nejapako herrialdean Ingurumen komiteen arteko sarea sortu; Hezkuntza zentroetan hondakin solidoen maneiatzean oinarritutako trebakuntza programa sortzea; Hezkuntza zentroetan hondakin solidoak maneiatzeko hornitu eta Ingurumen komiteak behar dituzten baliabideekin hornitu.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Egunero

Erakusketa

ZILÖ, artista lasartearen "The Artificial Smile Company" margo erakusketa. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan zehar.



Erakusketa

VIDAS MINADAS, 10 AÑOS DESPUES, Gervasio Sanchezen argazki erakusketa. Astelehenerik ostiralera irekia. Kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.



Osteguna, 19

Kontzertua

KONTZERTU BUFOA eskainiko dute musika eskolako. Kulturetxean, 19:00etan.



Limoiondo arriskutsuak

LOS LIMONEROS filma eskainiko du Okendo Zinema Taldeak. Film honetan Salmak, alargun palestinarra, bizilagun berriari aurre egin behar dio. Israelgo defentsa ministroa limoiondoz betetako bere soroaren aurrean dagoen etxera joan da bizitzera. Israelgo ejerzitoak segituan arriskutsuztat hartzen dituzte Salmaren zuhaitzak eta kentzeko agitzen dute. Ziad Daud, abokatu palestinarren laguntzarekin, auzitegi gorenera iritsiko da bere zuhaitzak ez galtzeko.

OSTEGUNEAN, HILAREN 19AN
KULTURETXEAN, 22:00ETAN
SARRERA, 4,15 EURO

Ostirala, 20

Kontzertua

MUSIKENKO flauta taldeak eskainiko du kontzertua Danok Kide elkarteak antolatutako IV. Topaketa Musikalen barruan. Brigitarren komentua, 19:30ean.

Ostirala, 20

Kontzertua

ANA VALENTINA trionen kontzertua Udaleko Gazteria Sailak eta Xpressionk zirkuituak antolatuta. Manuel Lekuona kulturetxeko kafetegian, 20:00ean.

Larunbata, 21

Kontzertua

BIG TIME SOUND SYSTEM taldea arduratuko da inauterietako gaua girotzeaz bere musikarekin. Jalgi kafe-antzokian, 0:00etatik aurrera goizalderarte.

Ostirala, 27

Kontzertua

JOSE LUNA ETA ARENA FINAREN kontzertua Andaluziaren eguneko ospakizunen barruan. Sarrera: 4 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:30ean.

Liburutegiko ordutegia



Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara

Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzuelakoan, ostiralera arte!

Oharrak

Euskal Inauterien entsaioak

Euskal Inauterien konpartsaok antolatzaileak jakin arazi nahi dute entsaioak hasi direla. Hauek Landaberri BHI egoitzan (REM ohia) egingo dira astearte eta ostegunetan 20:00etatik 21:00etara. Parte hartzeko entsaio egun batean agertzea besterik ez duzue, animatu!!

Bizilagunen Elkarteak marrazketa eta pintura eskolak

Lasarte-Oriako Bizilagunen Elkarteak jakinarazi nahi du marrazketa eta pintura eskolatan lekua badagoela. Interesa dutenek izena emateko, asteazkenetan eta ostiraletan egin behar dute arratsaldeko 18:00etatik 19:00etara kulturetxeko bigarren solairuan.

Mus Txapelketa Lasartearran

Lasartearra Elkarteak jakinarazi nahi du irekita dagoela XXXII. Mus Txapelketan izena emateko epea. Interesa dutenek elkartetik pasa daitezke otsailaren 22a bitartean.

Zirkoa inauterietan

Ttakunek antolatutako inauterietako desfileen parte hartu nahi duenak, gogoratu azken bilera egingo dela ostiraletan 18:00etan Erribera kalea 1 zenbakian (liburutegi zaharrean).

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info
txintxarri@ttakun.com
Geltoki kalea 4, behe



Autobusa AC-DC ikusteko

AC-DC taldeak, martxoak 31 astearte, Bartzelonan eskainiko duen kontzertura joateko autobusa antolatu da. Oraindik ez dago irteera lekua zehaztua, baina Donostia edo inguruko herri batean izango litzateke. Autobusa goizeko 9:00etan aterako da Bartzelonarantz eta kontzertu ostean, bueltatuko da. Joan-etorria 50 euro dira eta eserleku kopurua mugatua da. Bidaieren berri gehiago jakiteko bus_acdc@hotmail.com helbide elektronikora bidali mezua.

XV. Pala Txapelketa

Ostadarrek jakinarazi nahi du XV. Pala Txapelketarako izena emateko epea bukatu dela eta antolatzaileek bilera bat egingo dutela asteazkenen, otsailaren 18an, arratsaldeko 19:00etan Ostadarreko bulegoan, Geltoki 25, lehen Iparragire zapata denda zen lokalean. Bilera horretan taldeen zozketa egingo dute eta bikoteen artean txapelketako egutegia banatuko dute. Bilerara bikote kide bat behintzat agertzea komenigarria litzateke.



Eskutitzak

Egingo den frontoi berriaren harira

Herriko komunikabideetan argitaratu denaren arabera udal kiroldegian ondoan frontoi baten eraikitzea aurreikusten da, beste ekintzen artean.

Okendoko frontoia, "herriko ikurra", eraistek lasarteoritar guztiongan sortzen duen sentimentalasuna bazter batean utzirik, hainbat frontoi zale kezkatu agertzen gara berriaren eraikitzearekin.

Izan ere, kirol instalakuntza diseinuari dagokienez, herrian aurrekari ez oso itxaropentsuak izan baititugu.

Eta zatarkeri horien erantzule nor den jakin gabe, gainera. Frontoi berriak neurri egokiak izango ditu? Frontis eta paretao marrak bere lekuan margotuko dituzte? (Michelin kanpoko frontoia) Frontoiko lurrean estoldak ezarriko dituzte? (trinketea) Harmaillak jarriko dituzte, jende adindua batez ere, eser dadin? Euria egin eta bertan jokatzea galarrakozko da? (Michelineko areto-futboleko gunea) Kirolarien osasunerako kaltegarria den pareta edo hormarik eraikiko dute? (Michelineko areto-futboleko gunea)

Datu hauek guztiak jendeak egiazta ditzake kirol instalazio berriak ikusita, argazkirako dotore agertzen dira, baina kirolarien erabilerrako beste kontu bat da.

Hurrengo urtean ikusiko dugu.

ERREDAKZIOAN ITZULIA

Imanol Bardaji

Zer orientabide ekitalditan ari dira parte hartzen Batxilergo-ko bigarren mailako ikasleak? EHUK zenbait jarduera antolatzen ditu. Alde batetik, saio informatiboak, eskualdeka. Bestalde, joan den larunbatean (otsailaren 7an) feria moduko bat egon zen Ibaetan, eta hor hiru campusetako titulazio guztien berri eman zuten. Hainbat fakultatek praktika batzuk ere eskaintzen dituzte. Eta gero, atea zabalki jardunaldiak, ikasketak bertatik gehiago ezagutzeko. Unibertsitate pribatuek ere zenbait jardunaldi antolatzen dute.

Zer nolako zalantzak dituzte ikasleek zugana etortzean?

Gehienek badakite nondik jo gutxi gorabehera. Azken erabakia hartzea kostatzen zaie gehiago. Hor ibiltzen dira, han eta hemen zer nota eskatzen duten, non egin eta horrelakoak begiratzen.

Gabonen aurretik, orientazio programa bat landu ohi dugu. Galdetegi batzuen bitartez, haien interes profesionalak, gaitasunak, nortasuna ikusten dugu; zer moduzko ikasleak diren eta gai bakoitzean nola moldatzen diren ere bai. Hausnarketa egiteko balio du: benetan zer gustatzen zaien eta beren burua zertarako gai ikusten duten argitzeko. Une honetan, berriz, banakako orientazioa egiten ari gara. Informazioa badute, baina batzuetan galdu egiten dira horrenbeste informaziorekin.

Gurasoen presioa al dute?

Gurasoek egindako ikasketak direla, toki batean edo bestean etorkizun hobea dagoela esaten dietela... Batzuetan bai, baina ez askotan. Oro har haiei erabakitzen uzten zaiela uste dut.

Gazteek zeri begiratzen diote gehiago, irteera profesionalari edo gustuko dutenari?

Uste dut gehienek gustatzen zaiena begiratzen dutela. Irteerena gurasoen kontua da gehiago, agian. Baina printzi-

Itziar Olarra / Lasarte-Usurbil Institutuko orientatzailea

‘Ikasleak batzuetan galdu egiten dira horrenbeste informaziorekin’

Erabaki garrantzitsua hartzekotan dira orain Lasarte-Usurbil Institutuko 55 bat ikasle. Unibertsitatea ala Lanbide Heziketa, publikoa ala pribatua, ikasketa hauek ala besteak... Itziar Olarrak bederlatzi urte daramatza bertan, Batxilergoko bigarren urteko gazte hauei laguntza ematen.



“ Lanbide Heziketa irtenbide ona dela zabaltzen ari da. Hala ere, jende gehiago doa unibertsitatera.

tria zikloetan, eta lan irteera onenak dutenak dira horiek gainera, emakume gutxi dago.

Zer prestigio dauka Lanbide Heziketak ikasleen artean?

Gero eta handiagoa. Zabaltzen ari da irtenbide ona dela, arlo batzuetan behintzat lanpostuak badaudela, eta formakuntza tekniko txukuna ematen dutela. Gainera, aukera dago gero ziklo batzuetatik unibertsitatera joateko, eta beraz, atea ez da itxen. Hala ere, jende gehiago doa unibertsitatera.

Erabakia hartu aurretik gazteak nahikoa informatuta daudela uste duzu?

Informazio asko dute eskura. Baina batzuetan ez dakite zer egin horrenbeste informaziorekin, nola gestionatu. Batzuetan norbait behar dute informazio hori lantzen laguntzeko. •

pioz gustatzen zaiena begiratzen dute, eta gainera uste dut horixe egin behar dutela.

Oraindik ba al dago bereizkeriarik, neskek eta mutilek aukeratzen dituzten karrerari dagokienez?

Bai, hori gutxi aldatu da

oraingoz. Zenbait karreratan gero eta emakume gehiago dago; enpresari buruzkoetan eta halakoetan emakumeak dira gehienak. Baina beste karrera batzuetan ez da hala. Injinerutza karreretara, oraingoz mutil gehiago joaten dira neskak baino. Aldatzen ari

da, baina oso motel. Asko kostako zaigu hori aldatzea.

Gizarte gaietan eta osasun zientzietan neska gehiago eta karrera teknikoetan mutil gehiago, beraz.

Bai, eta Lanbide Heziketan ere nabaritzen da hori. Indus-

Amaia PORTUGAL

ELUTXETA
SAGARDOTEGIA

Oztaran bailara · Urnieta · Tel.: 943 556981

**ASTEARTETIK
IGANDERA
EGUERTIDAN
IREKITA**